



Hondarribiko  
Udala

# HONDARRIBIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO UDAL-ORDENANTZA



Hondarribiko  
Udala


Hondarribiko Udalak 1992ko Apirilaren 30ean «Hondarribiko Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantza»

onartu zuen, euskararen erabilera sustatzeko instituzioetatik eman diren lege eta arauak gure udalerrian aplikatu ahal izateko.

Hondarribiko Udala, Udal-Administrazioan eta Udalerrian euskararen normalizazioa bultzatzeko ahaleginak egiten ari denean, Ordenantza hau onartzea, aurrerapauso handia izan da eta hondarribiar guztiak horren edukia ezagutzea komenigarritzat ematen dugu, Udalaren erabakien berri izateaz gain".. erabili nahi duten hizkuntza aukeratzerakoan, dauzkaten eskubideen jakitun izan daitezten.

Ordenantza honen helburua hizkuntz normalizazio osoa lortzea baldin bada, Udalak euskararen erabileraren eredu bihurtu behar du eta horretarako ezinbestekoa izango da Udaleko pertsona guztiak -langile zein zinegotziak - Ordenantza tresnatzat , hartu eta horren aplikazioaren alde gogoz, arduraz eta ilusioz lan egitea. Helburu hau lortu ahal izateko hondarribiarron laguntza osoa izango dugulakoan.

Alfonso M. Oronoz Alkain  
Hondarribiko Alkatea





## AURKIBIDEA

- EUSKARAREN EGOERA HONDARRIBIAN
- EUSKARAREN EZAGUPENA AUZOEN ARABERA
- ADINAREN ARABERA
- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO UDAL ORDENANTZA

### I. XEDAPEN OROKORRAK

### II. EUSKARAREN ERABILERA UDALAREN BARNE FUNTZIONAMENDUAN

- Udal lanpostuen Hizkuntza Eskakizunak
- Sarrera-Irteera Erregistroak
- Bilkurak -Aktak -Deialdiak
- Iragarkiak -Oharrak -Informazioak
- Inprimakiak -Zigiluak
- Euskara bakarrik erabiliko den kasuak
- Enplegatu eta herritarren arteko harremanak
- Udaleko Kargu Politikoen jarduera.

### III. EUSKARAREN ERABILERA HONDARRIBIKO UDALERRIAN BULTZATU ETA NORMALIZATZEAZ

- Herribideetako seinale eta iragarpenak
- Garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak
- Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzak
- Publizitate errotuluak
- Irakaskuntza


### IV. UDALAREN HIZKUNTZ NORMALIZAZIORAKO AZPIEGITURA

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

ORDENANZA MUNICIPAL, SOBRE NORMAS PARA LA NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKARA EN EL AYUNTAMIENTO Y MUNICIPIO DE HONDARRIBIA



## EUSKARAREN EGOERA HONDARRIBIAN



SIADKOK 1990ean egindako Azterketa Soziolinguistikotik hartutako datuak



## EUSKARAREN EZAGUPENA AUZOEN ARABERA

AUZOAK (1)	Populazioa	%	Euskararen ezagupidea		
			EZER EZ	ZERBAIT	ONGI
1. Alde Zaharra	1.632	10,5	38,8	14,5	46,7
2. Lonja-Damarri	657	5,0	26,0	20,4	53,6
3. S. Pedro eta Santiago kaleak.	1.767	13,6	17,7	10,7	71,6
4. Butron-Arrantzale auzoa	896	6,9	20,8	12,4	66,8
5. Pasaia-Lezo-Errenderi-Donostia	1.947	14,9	30,7	18,3	51,0
6. Gabarrari	1.177	9,0	27,6	10,9	61,5
7. Mendelu	1.928	14,8	60,1	11,3	28,6
8. Higer bidea,- R. Iribarren – Arkoll - Santiago	1.577	12,1	26,8	16,1	57,1
9. Jaizkibel aldea-Soroeta kalea Soroeta berri	983	7,5	12,1	11,8	76,1
10. Baserriak.	748	5,7	7,2	2,9	89,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.042</b>	<b>100,0</b>	<b>29,7</b>	<b>13,2</b>	<b>57,1</b>

(1) 9 eta 10.a ez dira auzoak, bere auzokoen arteko ezberdintasun linguistikoak direla eta. Ezberdintasun hauek direla eta, ezin ditzakegu auzotzat har.

## IDAZTEKO GAITASUNA

AUZOAK (1)	Populazioa	%	Euskararen ezagupidea		
			EZER EZ	ZERBAIT	ONGI
1. Alde Zaharra	1.632	10,5	49,9	14,0	36,1
2. Lonja-Damarri	657	5,0	46,9	19,9	33,2
3. S. Pedro eta Santiago kaleak.	1.767	13,6	58,5	13,6	28,0
4. Butron-Arrantzale auzoa	896	6,9	37,6	19,1	43,3
5. Pasaia-Lezo-Errenderi-Donostia	1.947	14,9	47,3	21,6	31,1
6. Gabarrari	1.177	9,0	38,1	47,1	14,8
7. Mendelu	1.928	14,8	62,9	10,7	26,4
8. Higer bidea,- R. Iribarren – Arkoll - Santiago	1.577	12,1	42,9	16,8	40,3
9. Jaizkibel aldea-Soroeta kalea Soroeta berri	893	7,5	29,4	36,1	34,5
10. Baserriak.	748	5,7	19,8	34,2	46,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.042</b>	<b>100,0</b>	<b>46,4</b>	<b>21,4</b>	<b>32,2</b>



## EUSKARAREN EZAGUPENA ADINAREN ARABERA

### HITZ EGITEKO GAITASUNA

ADINA	EZER EZ		ZERBAIT		ONGI		GUZTIRA	
	1981	1986	1981	1986	1981	1986	1981	1986
4-5	32,07	20,27	18,21	13,62	49,73	66,11	368	301
5-9	26,37	18,26	19,91	17,11	53,71	64,62	929	783
10-14	21,66	18,26	21,17	20,20	57,17	61,54	1.039	1.287
15-19	27,98	19,67	18,79	20,45	53,23	59,88	990	1.159
20-24	33,33	28,00	13,90	17,83	52,77	54,17	813	1.043
25-29	41,67	33,74	15,78	14,18	42,55	52,09	792	910
30-34	35,78	41,20	13,40	16,13	50,82	42,67	858	1.017
35-39	35,07	36,73	11,69	14,38	53,24	48,88	864	1.029
40-44	29,71	34,37	10,71	11,99	59,58	53,65	663	1.001
45-49	30,19	32,54	7,58	10,85	62,23	56,62	699	710
50-54	28,06	30,81	6,04	6,76	65,91	62,43	613	740
55-59	30,93	30,77	5,27	5,08	63,80	64,15	569	650
60-64	25,39	28,35	6,18	8,35	68,43	63,30	453	575
65-69	25,80	29,02	4,67	3,35	69,53	67,63	407	448
70-74	23,72	25,98	4,80	3,41	71,47	70,60	333	381
75 eta +	23,71	24,31	3,09	4,24	73,20	71,45	388	543
<b>GUZTIRA</b>	<b>29,90</b>	<b>28,54</b>	<b>12,79</b>	<b>13,34</b>	<b>57,31</b>	<b>59,11</b>	<b>10.788</b>	<b>12.577</b>

### IDAZTEKO GAITASUNA

ADINA	1981			1986			GUZTIRA	
	EZER EZ	ZERBAIT	ONGI	EZER EZ	ZERBAIT	ONGI	1981	1986
4-5	98,37	0,82	0,82	77,41	8,97	13,62	368	301
5-9	52,31	19,59	28,09	39,59	25,67	34,74	929	783
10-14	30,70	25,70	43,60	23,23	22,69	54,08	1.039	1.287
15-19	38,59	23,94	37,47	16,83	24,50	48,66	990	1.159
20-24	45,39	19,31	35,30	41,32	23,20	35,47	813	1.043
25-29	56,05	18,31	26,64	48,46	19,89	31,65	792	910
30-34	53,38	19,11	27,51	56,54	18,39	25,07	858	1.017
35-39	56,37	15,86	27,78	51,31	20,89	27,79	864	1.029
40-44	49,92	19,61	30,47	49,35	21,08	29,57	663	1.001
45-49	49,21	17,02	33,76	49,15	21,97	28,87	699	710
50-54	49,27	15,33	35,40	47,43	23,38	29,19	613	740
55-59	50,26	16,70	33,04	51,54	22,15	26,31	569	650
60-64	50,99	14,13	34,88	50,78	22,96	26,26	453	575
65-69	51,60	15,72	32,68	53,13	19,42	27,46	407	448
70-74	52,25	14,11	33,63	47,77	24,15	28,08	333	381
75 eta +	54,38	12,11	33,51	48,07	27,44	24,49	388	543
<b>GUZTIRA</b>	<b>49,99</b>	<b>18,11</b>	<b>31,90</b>	<b>44,76</b>	<b>22,05</b>	<b>33,19</b>	<b>10.778</b>	<b>12.577</b>



Hondarribiko  
Udala

## HONDARRIBIKO UDALAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ARAUAK EMATEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.

Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren arabera, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Euskadiko hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala, eta hiritar guztiek dute euskara ezagutu nahiz erabiltzeko eskubidea, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde komunei dagokie bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta arautzea, hala nola beraien ezagutza segurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta erregulatzea.

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, aipatu Autonomi Estatutuko 6. artikuluan xedatutakoa garatzera dator, euskararen erabilera arautzen baitu. Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak, berriz, aipatu Legearen harian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetako euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen ditu.

Administrazio bakoitzari dagokio arau eta xedapen orokorrak bakoitzak bere jarduketa-eremuan aplikatzea, eta aplikazio horretarako arauak eman eta bitartekoak baliaraztea. Horixe da, hain zuzen ere, Ordenantza honen xedea, hots, indarrean dauden xedapen orokorrak Hondarribiko Udalaren jarduketa-eremuan hezurmamitu eta aplika daitezen arauak eman era betearaztea.

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza era gaztelania bezala ofiziala izateaz gain, Euskal Herri osoaren ondare da. Hori horrela, hiritar guztien elementu integratzailea izan behar du, eta Hondarribiko auzotar guztientzat hala izan dadin saiatuko da Udala. Bestela esanda, euskara Hondarribiko Udalean eta udalerrian normaltasunez erabiliko den egiazko komunikabide izan dadin nahi du Udalak, eta horretarako neurri egokiak hartuko ditu.

Indarreango araudiaren eta, halaber, euskararen erabilpena arautzeko oinarrizko legeri buruz Auzitegi Konstituzionalak emandako ekainaren 26ko 82/1986 Epaiaren arabera, hiritarrek hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubidea bermatzea eta aipatu hizkuntzen ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea dagokie botere publikoei. Hondarribiko Udalak beregain hartzen du erantzukizun hori. Hortaz, Udalaren barne-funtzionamenduan nahiz Udalaren eta herritarren arteko harremanetan, hala nola udalerriko bizitza sozialean, euskararen erabilpena normalizatzeko Udalak burutuko duen jardunerako arau- esparrua definitzen da Ordenantza honen eskutik .



## **LEHENENGO KAPITULUA / Xedapen Orokorrak.**

### 1. Artikulua.

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Hondarribiko Udaleko eta udalerriko hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala.

### 2. Artikulua.

Aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden lege nahiz arauen eta Ordenantza honetako xedapenen arabera erabiliko du euskara Hondarribiko Udalak, nahiz bere barne- funtzionamenduan, nahiz herritarrekiko edo organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan; azken helburua euskararen erabileraren normalizazioa izango da.

### 3. Artikulua.

Euskara eta gaztelania ofizialak badira ere, hainbat eta hainbat urtetan euskarak jasan duen zokoratze prozesuaren ondorioz, berdintasun sozialetik urrun daude. Hortaz, eta bi hizkuntza ofizialen berdintasun soziala lortzeko xedez, lehenasunezko tratamendu berezitua emango dio Hondarribiko Udalak euskarari.

### 4. Artikulua.

Euskal Herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ez ezik erabiltzeko ere eskubidea, nola hitzez bala idatziz. Ondorioz, Hondarribiko Udalak, indarreango legeriak oro har onartutakoen ildotik, honako hizkuntz eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiritarrei.

a) Udalarekin eta bere menpeko Organismo ororekin ahozko eta/ edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.

b) Udalak euskaraz eta gaztelanian antolatu eta kudeatutako edozein irakaskuntza mota euskaraz jasotzeko eskubidea.

c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati, sare sozial eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.

d) Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea.





## **BIGARREN KAPITULUA / Euskararen erabilera Udalaren barne funtzionamenduan.**

### 5. Artikulua.

4. artikuluan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Udalak. Hortaz, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izango da euskara Hondarribiko Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

### 6. Artikulua.

Aurreko artikuluan jasotakoa betetzeko xedez udal enplegatuak euskalduntzeko neurri egokiak hartuko ditu Hondarribiko Udalak. Era berean, etorkizunean kontratatzen dituen enplegatuak beren jarduna euskaraz nahiz gaztelaniaz burutzeko gai izan beharko dute. Guzti horretarako, azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuaren ildotik, Udaleko eta Udalaren menpeko organismoetako lanpostu guztien hizkuntz eskakizunak definitu eta onartu ditu, lanpostuetan jardun ahal izateko ezinbesteko baldintza gisa lanpostuen zerrendetan jaso direnak.

Hizkuntz eskakizunak lanpostu bakoitzaren eginkizun eta zereginen arabera definitu dira, hots, plaza bakoitzaren izaeran (Udal barruko nahiz kanpoko harreman-sarea, menpeko pertsonala, zerbitzuaren izaera, lanpostuaren maila profesionala, eginkizun zehatzak) oinarrituz erabaki dira lanpostuen ahozko nahiz idatzizko hizkuntz trebetasunak.

Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuko 3.3. artikulua arabera Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak definitu eta Hondarribiko Udalak onartu dituen hizkuntz eskakizunak 1992ko Martxoaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan dira.

### 7. Artikulua.

Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuko 12. artikuluan xedaturiko bost helburu mailakatuetariko laugarrena hartzen du beretzat Hondarribiko Udalak. Beraz, gizarte-izaera eta izaera orokorra duten Zerbitzu eta Unitate Administratibo guztiek oso-osorik ele bietan burutu ahal izango dute beren jarduna. Gainontzeko Zerbitzuetan, hau da, kale-garbitzaileen eta obretako lantaldearen zerbitzuetan zirkuitu elebidunak bermatuko dira, eta kasu batean nahiz bestean arduradunek elebidun izan beharko dute.

### 8. Artikulua.

Aipatu dekretuko laugarren helburua bost urtetan lor dadin plangintza egokia prestatu eta hezuramaituko du Hondarribiko Udalak; plangintza horretan zehaztuko dira enplegatu guztiak eta bakoitza dagokien hizkuntz eskakizunera egokitzeko prozesuan bete beharko diren epeak, Udalak jarriko dituen bitartekoak, lehenetsunak eta beste.



Bitartekoak era askotarikoak izango dira: denbora oso edo partzialeko ikastaroak, ikasturte bat edota gehiagoko ikastaroak, hala nola ikastaro trinkoak, barnetegiak, lanordutan edo lanorduz kanpo burutu beharrekoak, lan giroko prestakuntza, etab. Euskara Zerbitzuak kontrolatu eta ebaluatuko ditu ikastaroen emaitzak. Enplegatu bakoitzarentzat egoki den bitartekoa enplegatuarekin adostuta aplikatuko da.

Edozein kasutan, ondoko ordena honi jarraiki ezarriko dira euskalduntze prozesu horretako lehentasunak:

-Udal zerbitzuei dagokienez: Erregistroa, Kultura, Hezkuntza, Gazteria, Gizarte Ongizatea, Udaltzaingoa, Idazkaritza, Kontu-hartzailletza eta Hirigintza.

-Lanpostuei dagokienez: Idazkaria, Kontu-hartzailea, Batzorde informatibo eta Departamentuetako idazkariak, Zerbitzuburuak eta Arduradunak.

Nolanahi ere, aipatu plangintza hezurmamitzeari ekitearekin batera, herritarrekiko harreman zuzena duten Zerbitzu guztietan ahozko komunikazio elebiduna bermatzeko neurri egokiak hartuko dira.

Enplegatuak dagokien hizkuntz eskakizunera egokitzeko programa aplikatzerakoan, lantalde edo departamentu bereko enplegatuaren artean euskalduntze eta alfabetatze prozesuan aurreratuen daudenak lehenetsiko dira, interesatuek espresuki alderantzizkoa adierazi ezean.

#### 9. Artikulua.

Ordenantza honetako 5. artikulua araberak, euskara, Hondarribiko udalean, zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izango denez, dagokien hizkuntz eskakizuna jadanik betetzen duten enplegatuak euskaraz burutuko dute beren lana, eta gainontzekoek, elebiduntze plangintzaren barruan euskalduntzen doazen heinean, beren lana pixkanaka- pixkanaka euskaraz burutzeari ekingo diote, eta hala dagokien hizkuntz eskakizuna eskuratzean erabat euskaraz jardungo dira. Udalaren Euskara Zerbitzua izango da indarrean dagoen legeriak herritarrei aitortzen dizkien eskubideen bermetan gaztelaniaz ere eman behar dena gaztelaratuko duena.

#### 10. Artikulua.

Beren udal-jarduna euskaraz burutzeko gai diren eta hala burutzen duten enplegatuaren esku jarriko ditu Udalak beharrezko diren lexiko hiztegi, terminologia zerrenda, aldizkari eta liburu espezializatu eta gainerako dokumentu, inprimaki eta ereduak. Era berean, Euskara Zerbitzuaren aholkularitzaz ere baliatu ahal izango dira enplegatuak.

#### 11. Artikulua.

Hondarribiko Udaleko lanpostuez funtzionario nahiz lan erregimenpean jabetu ahal izateko



derrigorrezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzea. Beraz, probak gainditzen dituztenen artean lanpostuaren hizkuntz eskakizuna ere betetzen duen lehen izangaia jabetuko da lanpostuaz. Probak gainditutakoen artean lanpostuaren hizkuntz eskakizuna betetzen duen izangairik ez balego bi aukerotariko bat egin beharko luke Udalak: plaza hutsik utzi, berriro deialdia egitekotan, edo probetan lehen postua atera duenari behin-behineko kontratua egin; azken kasu horretan Udalak kontratatuari arrazoizko epe bat jarriko lioke bere hizkuntz eskakizuna eskura dezan, horretarako beharrezko dituen baliabideak eskainiz. Behin epe hori bukatu ondoren, behin-behingo kontraturiko enplegatuak dagokion hizkuntz eskakizunaren jabe dela egiaztatu beharko du Udalaren aurrean. Frogatzen baldin badu behin-betiko izaera hartuko du bere kontratuak, baina frogatzen ez badu lan-kontratua hautsi egingo da, eta lanpostu hori barne-sustapenera atera edo deialdi publikora jarri ahal izango da.

#### 12. Artikulua.

Udaletxera sartzen diren nahiz, Udaletxetik ateratzen diren dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udal Erregistroan, Azaroaren 24eko 10/1982 oinarrizko legeko 7. artikuluan xedatuaren arabera. Bi hizkuntza ofizialetan idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira.

#### 13. Artikulua.

Udalaren bandoak araudiak, ordenantzak eta ebazpenak oro bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, Ordenantza honetako 21. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

#### 14. Artikulua.

Euskara ere, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala denez, euskaraz idatzitako erabaki jakinerazpen, xedapen, ziurtagiri eta gainerako agiri guztiek balio ofiziala dute.

#### 15. Artikulua.

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua derrigor bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

#### 16. Artikulua.

Udaleko organo informatiboen eta Gobernu Batzordearen bilkuretako akten testu originalak bileretan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira. Edozein kasutan, euskaraz idatzitako proposamen edo diktamenei buruzko erabakiak, bileretan gaztelaniaz eztabaidatuak izan badira ere, euskaraz jasoko dira aktetan. Guzti hau 9. artikuluan xedatuaren kalterik gabe. Osoko Bilkuretako aktak euskaraz jasoko dira, nahiz eta bertan izandako interbentzioei buruzko erreferentziak egin izan diren hizkuntzan jaso.



#### 17. Artikulua.

Udaletako organo guztiek dute -informatiboek nahiz exekutiboek- beren ohizko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten organoen bilerak sistematikoki euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat aldibereko itzulpen zerbitzua emango da. Era berean, organo horien aktak, gutunak, jakinerazpenak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira, beharrezkoa den kasuetan gaztelarrera itzultzearen kalterik gabe, betiere Udalaren baliabideek horretarako bidea ematen badute.

#### 18. Artikulua.

Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen bilkuretako deialdi guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, ohiko lan-hizkuntzat euskara aukeratu duten organoen bilera-deialdiak izan ezik, horiek euskara hutsean idatziko baitira, eta gaztelaniazko itzulpena eskatzen duten partaideei bakarrik igorriko zaie.

#### 19. Artikulua.

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira, baina euskarazko mezua lehenetsiko da. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren ohar eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira, eta informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie komunikabideei. Hori guztia 21. artikuluan xedatuaren kalterik gabe.

#### 20. Artikulua.

Udalak eta bere menpeko organismoek erabiltzen dituzten inprimaki guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzita inprimatuko dira, bi hizkuntza ofizialetariko edozeinetako batean betetzeko moduan.

Halaber, Udalaren eta bere menpeko organismoen zigilu guztiak, bai barne-funtzionamendukoak, bai kanporako agirietan jartzekoak, euskara hutsean edo bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, 21. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

#### 21. Artikulua.

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

1.- Azaroaren 24eko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzeko, betetzea dagokien Administrazio Publikoari igortzen zaizkien idatzietan.

2.- Euskara hizkuntza ofiziala duten Organismoei bidaltzen zaizkien idatzietan.

3.- Errotulu, seinale eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan edota euskarazko hitza oso ezaguna denean.



4.- Mezua piktogramenez baliatuz adierazi litekeenean.

5.- Adierazten den ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean.

22. Artikulua.

Hondarribiko Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz idatziak izango dira, eta kontratuan esku hartzen duen beste alderdiak hala eskatuko balu, euskaraz eta gaztelaniaz idatziak izango lirateke.

23. Artikulua.

Idazmakinak, ordenagailuak, berauen inprimagailu eta programak, eta Hondarribiko Udaletxean erabiltzeko eskuratutako materiala euskaraz funtzionatzeko egokitua izan dadin saiaturiko da Udala.

24. Artikulua.

9. artikuluan xedatuarekin bat etorritik, euskaraz dakiten udal enplegatuak, normalki, euskaraz zuzenduko zaizkie herritarrei beren ahozko harremanetan, eta gaztelaniaz jardungo dira baldin eta horiek aukera hori egiten badute.

25. Artikulua.

Hondarribiko Udaleko kargu politikoeak, oso bereziki euskaraz jarduteko eragozpenik ez dutenek, normalki, euskaraz hitz egingo dute Udalaren ekintza publikoetan beren kargua dela eta parte hartzen dutenean. Bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten badute, lehenik euskaraz arituko dira.

26. Artikulua.

Udaletxeko eta Udalaren menpeko organismoen egoitzetako errotulazioa bi hizkuntza ofizialetan egingo da, Ordenantza honetako 21. artikulua 3. eta 4. puntuetan aipatu kasuetan izan ezik.



## **HIRUGARREN KAPITULUA / Euskararen erabilera Hondarribiko udalerrian bultzatu eta normalizatzeaz.**

### 27. Artikulua.

Hiru dira euskararen erabilera Hondarribiko udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak beregain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua pixkanaka-pixkanaka gehitzea, gaurko euskararen erabilpena ziurtatzea, eta nahiz euskaraz dakitenek nahiz ikasten ari direnek erabil dezaten bultzada iraunkorra ematea.

Hori horrela delarik, euskaraz dakitenen hizkuntz ohiturak aldatzearen aldeko saioak burutuko ditu Udalak, modu iraunkorren, nola bere ekimenez, hala bere gaineratik dauden Erakundeen eta herritarren arteko bitartekotza eginez. Era berean, eta erabilpena ziurtatu eta bultzatu eta gaurko erabilpen-esparruak handitzeko xedez, ahalegin berezia egingo du euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatu daitezen.

### 28. Artikulua.

1.- Hondarribiko Udalak Hondarribia udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; hori bai, beti ere, euskal, erromantze edo gaztelania jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz. Hori horrela delarik, Hondarribia udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspina egingo du Udalak, eginkizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.

2.- Herribideetako seinale eta iragarpenak oro euskarari lehentasuna emango dion modu elebidunean egongo dira, ulergarritasuna bermatzearen eta nazioarteko arauak errespetatzearen kalterik gabe.

3.- Ulergarritasuna piktograma bidez bermatu ahal litekeen kasuetan, euskarazkoa ezaguna denetan edota euskarazkoa eta erdarazkoa oso antzekoak direnetan euskarazko testua bakarrik izango dute iragarpenek;

### 29. Artikulua.

Hondarribiko garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezzen eta mezuaren ulergarritasuna bermatu ahal litekeenean euskara hutsean egin dadin neurri eraginkorrak hartuko ditu Udalak. Era berean, abiapuntua Hondarribian ez eduki arren udalerrri honetan geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

### 30. Artikulua.

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatuaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabili dadin eta, oro har, gizarte



bizitzan euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei.

Hortaz, Hondarribiko Udalak, aipatu xedearen harian eta bere jardute eremuan, honako neurriok hartu eta betearaziko ditu:

1.- Kultur, kirol eta aisia elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Hondarribiko Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, eta propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo- euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dute. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabe litezkeenak elebidunak baitira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, eta subentzio hartzaileek, subentzioa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dute.

2.- Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntz baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.

3.- Herriko festetako barraketako idatzi iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, eta, beraz, barrakak muntatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da eta hala jakinaraziko zaie barrakariei, eta fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko da.

4.- Publizitate-errotuluei dagokienez, honako irizpideen arabera emango dizkie dirulaguntzak Udalak izaera ofizialekoak ez diren merkatal eta zernahi motatako entitateei.

4.a.- Euskara hutsean idatzitako errotulua jartzen duenari, errotuluaren zenbatekoaren % 50 ordainduko zaio. 25.000 pezetatako mugapean.

4.b.- Errotulu elebiduna jartzen duenari errotuluaren zenbatekoaren %25 ordainduko zaio. 12.000 pezetatako mugapean.

4.c.- Errotuluetan izena, deitura edo izen-deiturak besterik agertzen ez denean, ez da, 4.a. eta 4.b. puntuetan xedatutako dirulaguntzarik emango.

4.d.- Establezimendua irekitzeko baimenaren jakinarazpenarekin batera, artikulua honetan xedatutako dirulaguntzen berri emango zaie interesatuei, baita beren errotuluak



euskaraz jar ditzaten gomendioa egin ere.

5.- Artikulu honetako lau puntuetan xedatua betetzeko, dohain eskainiko ditu Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza, eta horrela jakinaraziko zaie interesatuei.

### 31. Artikulua.

Hondarribian ematen den irakaskuntza ez unibertsitarioan, uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan xedatutako hizkuntz eredu etako eredurik euskaldunenak gero eta gehiago heda daitezten saio bereziak egingo ditu Udalak, batez ere matrikulazio epeak irekitzean, eta B edo D ereduak aukeratu dituzten haurrak, antolamendu arrazoiak direla medio eredu horietan eskolatu gabe gera ez daitezten. Era berean, eskola mundua eta eskolaurreen arteko giroa euskalduntzeko jarduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak. Hori guztia, gurasoen eta haurren aukera erabat errespetatuz eta ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.

### 32. Artikulua.

Ama hizkuntza euskara ez baizik gaztelania edo beste edozein hizkuntza duten hurrek euskara nekerik gabe ikasi ahal izan dezaten bizitzako lehen urteak oso garrantzitsuak direla kontuan hartuz, haur jaio berriak dituzten gurasoei sistematikoki zuzenduko zaie Udala Haur-Eskola zerbitzuaren berri emanez eta zerbitzu horrek, euskara ikasteari dagokionean, beren haurrentzat dituen alderdi onak jakinaraziz

### 33. Artikulua.

Hizkuntz normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa Hondarribian euskaraz hitz egiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitz egiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontuan hartuz alde batetik Hondarribiko biztanleriaren portzentaje handi batek oraindik ez dakiela euskaraz eta, bestetik, eskoletatik ere ez direla denak euskara behar bezala menderaturik irteten, eta, halaber, kontutan hartuz erantzukizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako eskaintza publikoa egiten jarraituko du Udal honek, Udal Euskaltegia sortu zenetik hona egin duen bezala.

### 34. Artikulua.

Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal daitezten, gizarte bizitza euskalduntzeko saio bereziak egingo ditu Udalak, bai sektore ezberdinak euskalduntzeko prozesuak bultzatuz, bai haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisia ospakizun euskarazkoak antolatuz. Era berean, euskarazko kreaioa indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, bidezko irizten dituen zenbait ekintza burutuko ditu Udalak: euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak direla, literatur lehiaketak direla, etab.





## **LAUGARREN KAPITULUA / Udalaren hizkuntz normalizaziorako azpiegitura.**

### 35. Artikulua.

Udaleko Euskara Zerbitzua arduratuko da Ordenantza honen aplikazio eta bere garapenerako etorkizunean har daitezen neurrien zuzendaritzaz eta jarraipenaz, eta Udalak bere antolamendu sistemaren barruan ezartzen duen Batzordeak edo/ eta bidezko irizten duen beste zenbait udal organo politikok emandako irizpideen arabera jardungo du.

Udaleko Euskara Kontseiluari eta gainontzeko organo politikoei dagokie, beraz, Udalaren hizkuntz normalizaziorako erabakiak proposatu, eztabaidatu eta hartzea, eta Euskarako Zerbitzu Teknikoaren zeregina da erabaki eta programa horiek hezuramaitu eta beraien zuzendaritzaz arduratzea.

Era berean, Hondarribiko udalerrian euskararen normalizazio lanetan dihardutenen koordinaziorako organo bat eratuko da. Organo hori, sektore ezberdinetan euskara normalizatzeko lanetan dihardutenen eztabaidarako elkargune izango da eta Udalaren eta Udalerrriaren hizkuntz normalizaziorako jardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko irizpideak emateaz arduratuko da. Ordenantza honen aplikazio eta garapenean eta hizkuntz normalizaziorako jardun orokorrean hizkuntz politikaren eskumena duten Erakundeekin elkarlanean arituko da Udala, eta oso bereziki Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiarekin eta HAEE-IVAPekin



Hondarribiko  
Udala

**XEDAPENAK.**

**XEDAPEN GEHIGARRIAK.**

Lehenengoa.

Hondarribiko Udalak sortu eta /edo bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntz normalizazioaren ikuspegia kontuan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara Zerbitzua izango da, beti ere Ordenantza honen eta indarrean dagoen araudi juridikoaren ildotik, hizkuntz normalizaziorako ikuspegiaren presentzia berma dadin informatuko duena; Udaleko Zerbitzu eta Departamentu guztiek txostena eman dezan eskaera egin beharko diote aipatu Zerbitzuari. Hori guztia, erabakia dagokion udal organoak hartzearen kalterik gabe.

Bigarrena.

Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek, Ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin beharko dituzte, beraiei dagokien guztian.

Hirugarrena.

Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta Ordenantzaren beraren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta bost urtetara, salbu eta euskararen normalizazioari buruzko legeria edo arautegi orokorraren nahiz egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz, edota bestelako edozein arrazoiengatik lehenago berrikustea egoki ez baderitzo.

**XEDAPENAK.**

**XEDAPEN DEROGATZAILEA.**

Baliorik gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez etorri kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

**AZKEN XEDAPENAK.**

Lehenengoa.

Ordenantza hau aplikatu eta garatzeko beharrezko diren xedapen eta programa berezi eta xehatuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko organo exekutiboek.

Bigarrena.

Ordenantza hau , Udalbatzaren 1992ko apirilaren 30eko batzarrean behin- betirako onartu zuena, indarrean sartuko da Tokiko Erregimeneko Oinarrien Legeko 70.2 artikulua, Lege berorretako 65.2 artikulua erekin erlazionaturik, xedatutakoari jarraiki, eta indarrean egongo da Udalbatzak horren aldaketarik edo indargabetzea erabaki bitartean.



## ORDENANZA MUNICIPAL, SOBRE NORMAS PARA LA NORMALIZACION DEL USO DEL EUSKARA EN EL AYUNTAMIENTO y MUNICIPIO DE HONDARRIBIA.

### INTRODUCCIÓN

Con arreglo a lo establecido en el Estatuto de Autonomía del País Vasco, el euskera, lengua propia del País Vasco, es junto con el castellano lengua oficial de Euskadi y todos los ciudadanos tienen derecho tanto a conocer o como a usarlo, correspondiendo a las instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma garantizar y regular el uso de ambas lenguas, así como disponer y regular las medidas necesarias para asegurar el interconocimiento de las mismas.

